

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Hasierako onespena ematea 2025eko aurrekontu orokorrari

Udalbatzak, 2024ko abenduaren 18an egindako ezohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea erakundearen 2025eko ekonomia ekitaldiko aurrekontuari.

Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espedientea jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera; epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Erdoñanan, 2024ko abenduaren 20an

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO